

Super motxilonga erosteko, gure erosleek web orri erabilerraza izango dute, denda fisikoetara joan beharrik izan ez dezaten. Bertan, produktuen informazioa ikusi eta erosketak modu eroso eta seguruan egin ahal izango dituzte. Gainera, web orriak bezeroarentzako arreta zerbitzua izango du, zalantzak argitzeko edo arazoak konpontzeko, eta horri esker gure supermerkatua neurri handi batean automatizatua izango da.

Bestalde, super motxilongak berme edo aseguru bat izango du. Bezeroek aseguru plan desberdinak aukeratu ahal izango dituzte, estaldura mailaren arabera. Zenbat eta babes handiagoa eskatu, orduan eta prezio handiagoa izango du aseguruak, bezeroei segurtasun eta lasaitasun handiagoa eskainiz.